

# Frantzisko Palacios euskal idazlearen sermoi bat

JOXEMIEL BIDADOR\*

Palacios<sup>1</sup> aitari buruzko berri iturririk nagusiena Villasanteren eskutik iritsi zitzaigun aspaldixko artikuluko gotor eta luzeki oretu batean<sup>2</sup>. Hartan Palaciosen garaikidea zen Manuel Bentura Etxeberria arrasatearrak ondu biografia jaso zuen<sup>3</sup>. Frantzisko Antonio Palacios Lezeta 1727an sortu zen Oñatin, eta sorterrian lehendabiziko urteak eman ostean, Madrilen zituen amaren aldetiko senitartekoengana abiatu zen ikasle bi urtez; behin itzulitakoan Aloñamendiko abarora bildu zen, eta Arantzazu aldera jo zuen frantziskotar egin asmoz. Teologia ikasketak 1758an ahiturik, Tolosan eta Arantzazun bertan ezarri zuten irakasle, baina misiogintzaren zirrara gainditu ezinik, Zarautzera jo zuen betiko. Ordutik aurrera Palacios aitaren lanak predikazioa eta aitorenaren artean banatuko ziren, eta idazketa kontuak ez baziren, ia beste ezerk ez zuen kezkatzen. Dena dela ordenean ere kargurik izan zuen, 1779an Zarauzko nagusia eta 1782an Probintziako kustodioa, alabaina Probintzia buruztza eskaini ziotenean zaputz egin zion. Zarautzen bertan hil zen 1804an.

\* Bigarren Hezkuntzako irakaslea.

<sup>1</sup> Ez zen txikia izan Frantzisko Palacios oñatiarrak euskaraz utzi zituen idazkien kopurua, alabaina XVIII. mendeko euskal literaturaren berri ematen duten ikerketetan ia ez da Palaciosen izena aipatzen. Honen arrazoia erraz dateke azaltzen, izan ere, Palaciosen lanak ez baitira egun sobera eskurgarri, frantziskotarrek Zarautzen duten komentuan argitara eman gabe baitiraute. Badira urte batzuk, dantzaren gaia dakarten euskal testu zaharren xerka nenbilela, Palaciosen sermoi honen kopia egin zidatela; bertan ez da dantzarena aipatzen, baina testu honen hartzeko arrazoi ia bakarra ez zen edukia izan, irakurgarritasuna baizik. Orduan jada garbikiro ikusten zen eskuizkribu horien egoera kaxkarra, orobat haien transkripzioaren beharra azkenean galduko ez baziren. Urte guzti hauetan Palaciosen sermioen transkripzioak edota ikerketak egin gabe dirautelakoan, denbora aldetik hobe dabilen inor kitzikatzeke asmoz bihoa honetan aipatu sermoi irakurgarri hura.

<sup>2</sup> Palaciosi buruzko sarrera bat zein dantzaren inguruan frantziskotarrak zeukan juzkuaz ikus nire “Herri misionestaren katarsia I”, *Dantzaren erreforma Euskal Herrian*, Bilbao, Bilboko Udala, 2005, VI Migel Unamuno saria, 267-305 or.

<sup>3</sup> KOLDO VILLASANTE KORTABITARTE, “El padre Palacios”, *Scriptorium Victoriense*, VIII, 1961, 7-101 or.; idem, “Aita Palacios, Oñatiko seme argia”, *Oñate*, 1954-1955, IV, 36-38 or.; idem, “Semblanza espiritual del Padre Palacios”, *Cantabria franciscana*, 1960, 272-286 or.

Hiru izan ziren izkiriatu zituen lan ugariren artean argira atera ziren bakarrak. Agertu zuen lehenbizikoa *Ramillete espiritual* idazkia dugu<sup>4</sup>, Arabako hiriburuan Haza aitaren laguntzaz 1765ean eginiko misio batzuen ondorioztzat har genezakeena, izan ere misioen ondarreko egunetan bertaratuen artean banatu baitzuen. Palaciosek bere misioidearekin elkarlanean ondutakotzat aurkeztu zigun idazkia, umiltasunaren izenean, dena den, oñatiarraren egiletasun bakarra begi bistakoa da. Bost lore edo abiapuntu biltzen zituen bizitza kristauago baterako, eta Saleskoaren eragin garbia atzeman daiteke orriotan.

*Propósitos* bere bigarren lana da<sup>5</sup> eta Arrasate zein Oñatin jende goreneri emandako misioen emaitza dugu. Aipagarria da azken hau, are gehiago misio gintza herri xehearen artean egindako erreforma saioltzat eman zaigunean. Ez dago zalantzarik misio hauek asmo eredu garriak zituztela herri arruntarekiko, baina bestalde ere, ez dut uste misioa jaso zuten goren mailako pertsonen seriotasunik gabe egingen zutenik. Haize ilustratu berriei hiri haundiagotan bizi zirenak baino itxiago zegoen taldea zatekeen seguroenik<sup>6</sup>. Alabaina bigarren honen alerik ez omen da egundaino gorde, eta bere aitortze pertsonala izan zen Pedro Antonio Añibarro euskal idazle ezagunak liburu bakar batean urtu eta euskarara egin zuen itzulketa da erabil dezakegun bakarra<sup>7</sup>.

Palacios aitek inprimarazi zuen hirugarren lana da historialariek eta abarrek gehien aipatu dutena, hain da kurios eta bitxia: *Respuesta satisfactoria del colegio de misioneros de N.P. San Francisco de la N.V. de Zarauz a la consulta y dictámenes impresos por la N.Villa de Balmaseda con ocasión de una proposición sobre bailes*, Iruñeko Josef Longasen etxean karrikaturik 1791an. Idazki hau hiru urte lehentxeago etxe bereko beste bi misiolariak enkarterri hartan egin zituzten misioetan sortu zen eztabaidari erantzutera zetorren. Ikus dezagun gertatutako afera.

1788an Santandereko kaderan zegoen Rafael Tomas Menendez-Luarca<sup>8</sup> apezpikuak igorriarik, Zarauzko misiolari etxeko bi fraide, Felipe Landa gereñuarra eta Antonio Arteta gatikarra hain zuzen ere, iritsi ziren herrira misio-

<sup>4</sup> *Ramillete espiritual que por conclusión de la santa misión ofrecen a los devotos para la perseverancia en sus santos propósitos los PP. fr. Francisco de Palacios ex-lector de philosophia y fr. Juan Francisco de Haza, ambos misioneros apostólicos del colegio de Zarauz de religiosos menores observantes de esta Provincia de Cantabria*, Gasteiz, Thomas Robles, 1765, 112 or.

<sup>5</sup> Iruñea, 1783.

<sup>6</sup> Liburu honen bederatzia puntuak honako hauek ziren: «Evitar el pecado; evitar las malas compañías; guardar los sentidos; destierro de la ociosidad; buen empleo del tiempo; paseo, el juego permitido y las diversiones moderadas; evitar culpas pequeñas; pedir perdón; confesión».

<sup>7</sup> *Lora sorta espiritual eta propositu santuak bizitza barri bat egiteko*, Tolosa, 1803.

<sup>8</sup> Martin de los Herosek gotzai honen deskribapen ederra bazekarren: «Rafel Tomás Menéndez Luarca era sin duda virtuoso y para consigo muy austero, pero le sobraba realmente de celo lo que le faltaba de práctica del mundo y tacto por lo mismo para gobernar. Sucedióle por lo tanto que se equivocó más de una vez ya en tomar por malo lo que no era, y ya en el modo y en la oportunidad de remediar lo que pedía corrección y no pena, y tuvo por lo mismo choques y contradicciones muy serias. Los que no lo trataron personalmente o no leyeron sus opúsculos, o su difuso e incomprensible poema del Sin y con Dios con los hombres y de los hombres con Dios, que bajo el nombre de Clemente Pastor de la Montaña escribió y publicó durante la guerra de Napoleón y sobre todo su célebre pastoral impresa en 1816 y titulada Fumigatorio igneo fulminante estremo, estremo de ordenada caridad que el obispo de Santander dirije a sus feligreses para preservarlos de la infernal peste Volteri-Napoleónica, difícilmente podrá formarse idea de un prelado tan singular, tan conocido por la multitud de anécdotas que de él se cuentan y por lo resuelto de su genio, que como él mismo expresó en la pastoral ya nombrada, era más para mandar ejércitos que para dirigir ovejas», op. cit., 431-432 or.

natzeko zereginarekin. Pulpitotik egin zuten saioan neurri gabekoak bota bidetuzten dantzaren aurka, besteak beste *campo de batalla*, *serrallo* edota *teatro de Venus*. Pekatu mortaltzat jo zuten dantzan parte hartzea, bai eta begira egotea ere. Hurrrengo urtean, ber hiriko apaiz batek, Manuel Benito Villak, danbolintero baten seme bati jaunartzea debekatu zion. Honen aurrean, udalak beharreko salaketak epaitegian jartzea onartu zuen maiatzaren 24an. 1790ean zigorra aditzera ematen denean apaiz hori Santander aldera joan zen ihesean. Ez ziren honakoak gertaera isolatuak, eta aurretik ere gai bera ardatz harturik misiolari alkantarinoek 1729an egin zituzten misionestetan udalari eskatu zioten gizon eta emaztekien arteko dantzak galarazteko.

Horrelako giro nahasian udalak gaiari buruzko galdetegi bat egitea erabaki zuen behin-betikoz eztabaida konpondurik uzteko asmoz, eta galdetutako teologoen erantzunekin kaier txiki bat egitea erabaki zuen Balmasedan bertan, 1789an izenburu honen azpian ageri zena: *Consultas hechas por la N. Villa de Balmaseda, una de las M.N. y M.L. del Señorío de Bizcaya, y dictámenes a la continuación dados por los sujetos que los suscriben en razón a lo lícito o ilícito de los bailes a son de tamboril*. Esangabe doa itaundutakoek ez zutela pekatu mortalik atzematen dantzan, eta gehiegizkoa zeritzaie misiolari heretsien jarrerari. Inprimatu ziren berrogei alekietako bat Balmasedako Udalak Zarautza bidali zuen, eta fraideek ohorezko aferatzat harturik, Palaciosi eskatu zioten otoi berak erantzun bat ontzeko, etxean zegoen pertsonarik egokiena baitzen. Hasiera batean Palaciosek ezetz, baina azkenean eskaria onartu, eta esan urtean agertu zen gorago aipatutako apologia. Esan behar da inpresioak zailtasunaren bat izan zuela ordeneko teologariren batekin, baina azkenean atera zen. Horrela diosku bederen Bentura Etxeberriak Palaciosi buruz egin zuen biografian. Azken finean, honek ere ez zuen lana haintzat hartu:

Obra difusa, escrita sin las gracias del buen gusto, que apenas se reimprimará, por lo que no me detengo en dar individual noticia de ella.

Honetan dakardan testua hobe kokatzearren, Palacios aitak XVIII. mendearen bigarren erdialdean misiolari gisa uztatu zuen arrakasta itzela aipatu behar da:

*Predicó misiones por el espacio de 42 años, siendo el más buscado de las ciudades y principales pueblos del país. Si es muy ordinario acaecer conversiones ruidosas y extraordinarias en tiempo de misión, batalla continua contra el vicio, con el Padre Palacios sucedieron bien abundantes y particulares. Más de una vez movidas de su predicación, tocaron las gentes la puerta de la casa donde se hospedaba, suplicando les hoyese en confesión, sin poder esperar hasta el amanecer. Sus sermones eran largos, predicaba clara, sencillamente y casi sin hornato la doctrina de la sagrada escritura y de los maestros de la vida cristiana (...) A haber tenido auditorios más numerosos y haber predicado en las provincias interiores del reino algunos afectos al padre Palacios opinan que habría sido tan celebre como Garcés, Calatayud y Cádiz; yo que no les cederé fácilmente en esta afeción, no me atrevo a asegurar tanto<sup>9</sup>.*

Zernahi ere zen, ukatu ezinezkoa da Euskal Herri mailan oñatiarrak be-  
reganatu zuen ospea, eta apezkoitzat nekez eman litekeen Martin de los He-

<sup>9</sup> KOLDO VILLASANTE, "El padre Palacios", op. cit., 77-78 or.

ros (1784-1859) Karrantza aldeko historialari liberalaren testigantza hortxe dago irakurgai:

*Uno de los misioneros de más fama de este país, lo era ya de muy atrás en Balmaseda en donde había predicado con aceptación la cuaresma de 1780 y misionado con Fr. Juan Antonio de Haza en 1773. Murió a principios de este siglo con fama de santidad y aún nos acordamos de haber oído decir que había hecho milagros<sup>10</sup>.*

Eite bereko testigantza da Juan Antonio Mogel idazle handiak *Konfesino ona* liburuan ekarri zuena. Barka bekit aipamenaren luzea, baina merezi duelako segurtamenean, hementxe doa:

Euskaldun guzti guztiak, zar gazte, agure ta umiak, daukee aita Palaziosen enzutia. Gure zori txaarrez, zaartu da gaixua; jausi jakoz gorputzeko indarrak, ta bakarrik dauka zoli zolija, Jaungoikuak emon eutsan min garbi ta berba eder asko atera dituzana. Uste dot, oraindino ikusiko dabeela, ez oñez, ez zaldiz ibilli danian, gizonen batzuben besuetan daruela eleixara san Juan Ebanjelistia eruaten ebeen legez, arnasiak dirautsan artian irakasteko zeruko bidia. Ez dot bildurrik, arrotuko dala nik emon aldaijodazan alabanzakaz, elduten bada bere eskubetara nire liburu au. Jaungoikuaren glorijan iminita daukeenak bijotza, bazaube, ez daukala gizonak berez gauza onik; egiñ alak eginda bere, esan biar ebeela apostolubak eurak, ta ori Kristoren aginduz, *serbitzari gauza ezak gara*. Dakart bada agirira, adierazoteko askok dakijena, zelan atera eban argitara, eta erderaz, liburu txikar, baña balijo andikua, nik onsubengo artu dodan dotrina geijaren ganian, irakasten dabela astiro, zelan iraun biar dan, ta zelan iraungo dan bizitza on ta barri baten. Bein baño geijagotan adiskidetasunian esateko legez egon natxako: Aita Palazios! Au zer da? Izan berori euskaldun garbija; Naparrua, Araba, Gipuzkoa, ta Bizkai guztiko bazter guztietan ibilli nekatuten buruba, erdal-errietan baño geijago, irakasten zeruko bidia; besteti ain ederto jakin euskeria, ta agertu erdaldun arrotzentzat alango liburuxuba, ta itxi euskaldun etxeak utsik? Nortzuk daukee liburuben premiña geijago? Zer eranzungo eustan? Ez eukala astirik arnasia artuteko; izango zala nor edo nor biurtu gurako ebana euskerara, berak erdera ekijenentzat atera eban liburuxuba. Alan jazo da. Aita frai Pedro Antonio Añibarrok birau dau Bizkaiko euskerara, izen au emonda: *Lora sorta espirituala, ta propositu santuak bizitza barri bat egiteko: Aita Palazios misionariak misino ondoan emon zituanak*. Deritzat, nor edo nor dendatuko dala giputz euskeran imintera. Zeinbat on ekarri daikian liburuxu oneek, ez da erraz esatia. Badazau aita Palaziosek; bazaube bere lagun Zarauzko kolejioko misionarijak, zelan euren biar asko galdu daruazan diabrubak. Damu emoten deutsee kalte onek, damu emon eruakon legez S. Pablori. Alan bere, nok ez daki zeinbat arima zuzendu daruezan Zarauzko misionari neure bijotzian daukadazanak? Zeinbat kristinau, lotsa dongaro aitu batek konfesino donga asko egiten darabilzanak, agertu daruez, euren sermoiakaz bigundurik, konfesino jeneralak eginda, bestelan jo biar ebeenak infernuba? Dakuskuz birauta erriyak misinoe ostian. Zar askok iraun darue bizitza barrijan; gazteren batzun bere bai; ta okertuten dirianai bere, sarri geratu oi jakee arantzaren bat; pekatubak gixitu oi dira beste batzubetan; ta guenian, beti ateraten dabee, apostolu-

<sup>10</sup> MARTIN DE LOS HEROS, *Historia de Balmaseda*, Bilbo, 1926, 438 or.

ben pausubetan dabilzan relijioso oneek, arpegija Jesu Kristoren bando, ta izango dabee sarija, guztiak iraungo balebe legez. Bein baño geijagotan zurtu nabena da, ikustia, zeinbat atzerapen, ta atxakija emon daruen askok eruateko errijetara misinuak. Ez ete dakije zeinbat mesede dakarrezan? Ez dakusku, zelan misino baten ostian esan oi dan, zorijonian ekarri zirala; noisian bein on andijak ekarten ditubezala? Zelan bada gero artu gura ezak? Diabruba dabillelako bitartian eragozteko. Zorigaistokuak arerijo onen lagun egiten dirianak. Emon biarko deutsee Jaungoikuari kontu estuba, eragotzi gura ditubezalako misinoeko frutubak. Jangoikuak gorde dagijala, Euskalerrajak dirauben artian, Zarauzko kolejijua. Bai arren bai<sup>11</sup>.

Garai bertsukoak dira Otxandioko erremintariak hiri hartan 1800ean misionatzegatik kantatu zizkioten bertsoak, Uriarte ordenkideak bazter utzi gabe eta behar bezala jaso zituenak:

Ez naiz orain artian  
Gelditu bakian  
Berso olgagarriak  
Ifini artian  
Orain paratzera nua  
Guztientzat gustoz  
Alabatzen dedala  
Aita Palacios.

Zarauzko konbentutik  
Gugana etorten da  
Eskuban kurutziagaz  
Aldatz gora beera  
Bidian datorrela  
Izerdiz beterik  
Gugana orregaitik  
Kontentuz beterik.

Zeinbat ta zeinbat bidar  
Misino santuban  
Negarrez euki gaitu  
Eleisa barruban  
Egija esaten deuskula  
Pulpitu ganetik  
Arren apartau gaitian  
Bizi okerretik.

Edozein modutan ere, misiolari honen lana ez zen beti erraza izan. Ikusi dugu jada Balmasedako afera, baina huraxe ez zen bakarra izan. Ohiko misioakidea zen Juan Frantzisko Hazarekin Bilbon 1765ean emandako misioaldian ere arazoak izan zituen. Palaciosen ustez aldi hartan ez zuten beharreko arrakasta lortu hurbil zetozen festak zirela bide, areago, hainbat herritarren aburuz misioak bertan behera geratu behar ziren arrazoi berberetatik, edo atzeratu bederik ere. Udalbatzakoek mezetara joan ezin zutela aprobetxatuz, misioak nahi ez zituztenen aurka Palacios aitak bota zituenak ez ziren maka-

<sup>11</sup> *Konfesino ona edo zeinbat gauzak lagundu biar deutseen konfesinuari ondo egiña izateko*, Gasteiz, Fermin Larunbe, 1803, 292-296 or.

lak izan, eta udalekoei gehixegi gustatu ez zitzaizkienez, kenka larrian ibili behar izan zuten. Alabaina, poterearekin ez zen arazo larriegirik gertatu, eta arazoa bere onera eramanda, Bilboko misioaldia nahi beste luzatu zieten frantziskano temosoei, euskaraz zein erderaz predika zezaten. Bilbon berriz ere, 1800eko uztailan aritu zen Palacios antzerkiaren aurka, baina ordukoan komedien aurka ez predikatzeko eskatu zioten udalbatzetik zer gerta ere.

Bere prediku luzeak ahal guztietan jaso zituen idatziz, eta horren kariaz argitaratzeko lain zeuden bi ale utzi zituen: «*Dictó dos tomos de sermones para su publicación que no llegaron a imprimirse. Ignoramos su paradero*». Nolanahi ere Villasantek beste artikulua batean honela zioskun: «*Dos libros de sermones de Palacios a punto de imprimirse los tiene José Ignacio Tellechea Idígoras que los adquirió en pública subasta*»<sup>12</sup>.

Berberak ote? Bestalde Bentura Etxeberriak Oñatikoaren biografian jasotzen zituen haren 15 liburukietako 13 besterik ez daude Zarauzko etxean. Palaciosek berak izkiriatu 13 sermoitegieta bakarra da euskaraz, eta baliteke galdutako bi aleak euskaraz ere idatzirik egotea, kontuan harturik misio aunitz Euskal Herrian eta euskaraz egin zituela, alabaina honen baieztatzeko ez dugu inongo frogarik, are gutxiago pentsatzen badugu euskaraz ogutzitako sermoi asko erderaz jasotzeko ohitura zegoela. Eskuizkribu hauek ia irakurtezin daude, eta behar-beharrezko gertatzen da berehalako transkripzioa testuak gordeko badira, eta liburuki guztiena ezpada, alferrikako lana datekeena, bai euskarazko alearena behinik-behin.

Ekartzen dudan testua Zegama, Zerain eta Mutiloan emandako sermoi bat da, gai nagusi limosnarena duena, eta datarik gabekoa. Entzuleen euskalkia kontuan harturik, Palaciosek gipuzkeraz egin zuen, seguraski ekialdeko oihartzun handiagoa duen euskaraz Goierri ibiltzen zena baino. Ezin ahan-tzi, bestalde, oñatiarra Zarautzen zuela bizitokia. Bestalde, sermoilari ona zen aldetik, ez zukeen arazo handiegirik testua guztiz irakurri gabe tokian tokiko ezaugarrien arabera mintzatzeko, paperean geratzen zena eredu gisara edo mantenduz. Alabaina, Palaciosek erabilitako euskara nekez aztertzen ahal da honelako lagin txikerrarekin; testu gehiagori behatu beharko litzaioke, zalan-tzarik gabe, ondorio sendoagorik atera nahi bada.

### Sermon de Limosna de Ropa en Zegama, Zerain y Mutiloa<sup>13</sup>

Apenas obediencia sartu ninduban enpeñu onetan nun bertatik arkitu nintzan esperanza gitzirekin ya obedezitzeko ya kunplitzeko ere nere deseo onakin, ikusten nuen alde bateti zala enpeñuba andia, konparatzen nuen bes-teti zala enpeñatuba txikia, zala enpeñuba andia, baña zer esaten det? Zala enpeñuba andia baño andiagoo, zala enpeñatuba txikia baño txikiagoo, da enpeñuba andia. Askoo da izatea eskea edo eskabilla. Zer izan al dite bada en-peñu andiagorik eskatzalla on bat egitea baño? Du nezesidadeak arpegi gaiz-toa, eztu petizio ohea. Orregati esango nuke nik gaizki kostruitu bazuen ere antziñakoak arako latin ura *necesitas carce lege* esaten zuela, zeukala nezesida-deak hereje baten arpegia, izandu zala konstruzioa sententzia andi bat duela

<sup>12</sup> KOLDO VILLASANTE, "El colegio de misioneros de Zarauz", op. cit., 281-330.

<sup>13</sup> Transkripzioa euskara batuaren ortografiara egin dut, «h» hizkiaren salbuespenarekin, bistan de-nez. Hainbatetan arazoak izan ditut testua irakurtzeko eta kortxeteen bitartez adierazi dut zerbait falta dela; posiblea izan denean falta den testua sartu dut.

di[ ]di hereje baten arpegia ya nezesidadeak ya ere petizioak. Eztago probatzeko gauza obeagorik esperi[en]zi]a bera bano. Zer erakusten digu orrek? Eztezu ikusten nola iges egiten dan nezesidade bat ez ikusteagaiti, petizio bat ez aditzeagaiti? Zenbat aldiz nere jente ona? Sobre lastima andia bada ere zer esan nai du onek ezpada duela arpegi gaiztoa? Inork ere bada iges egiten ez-tu arpegi on bategandi!

Da enpeñuba andia baño andiagoa zergati dan Arantzazukoa. Egunero daukazute ango religiosoak zeuren errietan ya garia ya gaztana eta ya beste gauzarikan asko eskatzen. B[ein]go eskean bada, baldin ain arpegi gaiztoa badu, zer izango da betikoak? Esan dezatela esperi[en]zi]a daukatenak, esan dezatela egunero aditzen dutenak *zoaz impertinente ori leen ere artu dezu ta*. Ya nengoen bada au konsideratubarekin esateko beste [ ]arekin, *malo emere quam rogare*, naiago det nere dirubarekin erosi zeñ ez berriz enfadatu, baldin begiratu ezpanu zeodela nere mangaak utzak, baita nintzala ere nere Aita San Franziskubaren semea.

Seigarren bere erregela sagraduko kapituluban emaiten digu bere seme guztia ebang[eli]o santuti aterariko konseju andi bat, obek dira bere itzak: *nec opontet eso venecundam quo pro nobis se fecit pauperum ni hoc mundo*, ez tegula ez iñola ere lotzatu bear ez gure nezesidadeak argiratzeko ezta ere aien erremedio prokuratzeko. Akordaturik egin izandu zan Jesu Xto. pobrea gutaitik, au konsideraturik bada, eta ya konsolaturik zerbait, abiatu nintzan pensatzen benzitu al nezakean bigarren nere txikidasunak emaiten zidan difikultadea.

Naizala txikia sermoiak esango du, eta txikia baño txikiagoa, edo alde guzietara txikia, paraje sagradu onetara begiratu ezker esanik dago. Difikultade onek eman izan zidan leendabizikoarena.

## 2. fol.

Txikiarena bazan ere bildur andi bat, baño benzitu nuben pensatubarekin nindorra erra noble ta gustiz piadoso onetara. Ze[ga]ti noblezaren kondizio bada, falta ikusiarekin beste gabe, faltaren remedioa prokuratzea, erraz (esan nuen nere artean) jua[n] [nai]deke esperanza guziarekin. Nik esanagaiti bada gaizki esango didak ondo. Eztago zer probatu erlojubaren orduba erakusten duen moduban eskubak, ala nobleza manitestatzen duela onen itx[ ]gi lasterrak. Bana [ ] baliz ere, ikusi dezagun zer [egin] zuen Jesu Xto. gure Jaiuak desiertu batean.

Segitzen zioen Je[su] Xto.ri okasio batean bost milia gizonen, eta oben be-  
arra erremediatzeko errepara[tu] det expositione sagradubakin, ez zuela itxeden eren eskatzeari. Ape[nas] ikusi zuen nezesidadea, dio ebang[elis]ta sagradubak, ipiñi zuela erremedioa: *sublebasset oculos Jesus et vidisset qua multitudo maxima venit ad eum dixit ad Philipum: unde panes ut manducent hi?* Etza[n] ondo etorri gosea, ya zeukaten eren eskubetan ogia, *distribuit conventibus*. O zer probidentziaren andia! O zer piedadea. Baña ezta[ ] zer espantatu zan Jesu Xto. Jaungoikoa bezin noblea. Noblezaren seña le ona da bereala pobreri eskuba largatzea, da eskatzeko ez [ ]rik emaita. Orregati dio arako Jesuita gustiz andiak, Vecina par[ega]beak, ez tuela juizioko egunean bere semeai Jaungoikoak esango zatoste nere seme maiteak, zergati eskatu nizuben ta eman zind[aten] jaaten, *petivi et dedistis mihi manducare*, ezpata zatoste zer-

gati gose nintzanean eman zindaten jaaten, *esurivi et dedistis mihi manducare*. Ala esaten du gizon andi onek, baña ni kontentatuko [naiz] baldin eskatubarekin emaiten badidak ondo.

Benziturik bada di[fi]kultade guziak determinatu nintzan predikatzer, ez aren [no]blezak limosna egiteko bear zuelako, ezpada nere obligazioar[en] kunplitzeko. Predikatuko det bada ta izango da nere asunto itz bidea, limosnaren bentaja edo probetxuren batzuek esatea. [Ba]ña leenago jakin dezagun, ta serbituko du doktrinatzat, zer [dan] limosna ta zenbat kondizio bear diraden izan [ ] bear dan b[eze]la. Da limosna pobrearen nezesidatea erremediatzea, nor ta [no]ri daukan obligazioa ori badakie eren mesedeak. Ojala eg[lingo] balute gauza onen gañean dakiten adiña. Limosnari on izan dedin lagundu bear dien zirkunstanziak dirade asko, baña den[po]raren faltagaiti, nere sermoia iru puntukoa izango dan ezker, esplikaturko ditut iru. Obek dirade asko, laster da ondo. Leenbizikoa erakusten du Jaungoikoak leen esan dedan kaso artan. Dio

### 3. fol.

ebangelista sagaradubak eman ziela janaria nai adina, *quantum solebant*, ta nai baño geiago sobratu ziran, bada amabi saski, *collegerunt quo et impleverunt duodecim cophinos fragmentorum*. Bigarrena okasio artan bertan ikusi degu, ta da gauza klaruba, zergati Ebangelista San Juanek dioan moduban, laster emaiten duenak, emaiten du bi aldiz, ta nekez emaiten duenak ez bein. O zenbat aldiz izango lizateke askoz obe pobrea utzik bealtzea, zeñ ez ordu-bete pasatuta ogi pixka, entedimentuba baño naiago batekin, ta ura gogo gaiztoarekin emana egiten da onenbeste. Baña orrelako limosnak ezta limosnaren ez izana ta ez izena.

Iruigarrena da ondo. Au da Jaungoikoagaiti, ez puntuz. Baña eztago esan, zergati puntu egiten bada ere beste gauza guztietan, gitxitan limosnan suzeditzen da. Nere kristaubak, Jaungoikoagaiti, Jaungoikoagaiti, ez puntu egiten dezutela, ezta ere munduko alabanzagaiti. O zenbat legokean zin esan onen gañean! Zenbat limosna nola egin, ala jakiten diran asko gustian. Berriz diot Jaungoikoagaiti ta itzilik. Au erakusteagaiti agintzen zuen Jaungoikoak ez zezala eskerreko eskubak jakin zer egiten zuen eskumak, *nesciat dextera tua quid faciat sinistra*. Orregati esaten du San Matheok *noli tuba canere ante*, ez dezazula publikatu tronpetarekin bezela egiten duzun obra ona. Obek eta beste asko dirade limosnari izatako lagundu bear dioten zirkunstanziak, ta niri lagundu bear didana prosegitzeko da grazia. Eska diozagun bada ama graziaz beteari esaten diogula *ave Maria*.

Gaurko egunean limosna eskatzea ez paliz ere, izango lizate limosna gaurko asuntorikan onena. Kontatzen digu ebangelio sagradubak emakume santa, Jesu Xtoren aoti kanonizaturiko Magdalena Santa guztiz andiaren miseri-kordia. Jakin zuen Jesu Xto konbidaturik zegoan eguerdi batean, ta antzirik aldebatetara araso puntu andi ta txiki geienak arrastratzen dutenak, eldu zan etxe artaira Jesu Xtorekin egitera egin diran miseri-kordietati miseri-kordiarik andiena. Artu zuen ubentu dedikatuz edo estimatuz beterik zeukan baso bat ta allegaturik bere esposo dibinoaren oñetara garbitu ziozkan bere begietako negarrarekin, leortu bere ille ederrarekin eta untatu esan dedan ubentubarekin. Au da istoria sagraduba ta au da Magdalenak egin zuen miseri-kordia.



Zer alkanzatu zuen orrekin esaten du ebangelio sagradubak, ta esango degu guk orra nola eleiza ama santak nai duen gaur miserikordia ta limosnaren bentajak predikatzea. Predikatuko det bada limosnaren gañean, ta izango dira iru puntu, asieran esan dedan itzean eskritura santubak erakusten

#### 4. fol.

digunak. Obek dira *quoniam eleemosina a morte liberat et ipsa a qua pun-gat peccata et facit invenire misericordiam et vitam eternam*, limosnak libratzen duela eriotzati, bekatubetati ta bera dala mediante logratzen dala sekulako bi-tizta. Guazen bertati leendabizikoarekin, *ellemosina a morte liberat*.

Bi okasio suzeditu zizaion Tobias limosnagilleari, biak andiak, biak peli-guru gogorrekoak. baña bietati dakust ateratzen dala bitoriarekin. Tragatu izan nai zuen arrai ikaragarri batek, baña ain eman zion Jaungoikoak indar andiak ze benziturik erraz andi etorri zizaion erremedioa, nundi uste zuen ze-torgola eriotza artu zuen aingerubak, agindu zion orduban arrai ikaragarri ura atera ziozkan entrañak, eta obek izandu ziran erremedioa bere aitari begiak argitzeko ta bigarren peliguru anditi eskapatzeko, bada obek erreta usaiarekin iges eragin zion Luziferren ministro Asmodeo gaiztoari, zeñak il-tzen zituban Sara emakumearekin eskonzen ziran guziak, *et Demonis nomine Asmodeus occiderat eos mox ni ingresi fuissent ad illam*. Baña nola logratu zuen ainbat ditxa, nola ain peliguru andietati libratzea? Adiezazu. Zan Tobias aita izen santukoaren seme ona. Zan bere limosna miserikordia ta piedade guzia-ren zeukan lagunikan onena. Au erakusten du liburu sagradubak. Burlatzen zuen aideak, ta gaitzen dana, bere emazteak bere miserikordiak gati. Tobias baña laguntzen zion bere obra onetan seme onak, *reventus nunciavet: mani-festa vana facta est spes tua et ellemosina tua modo*. Orain ikusten da, esaten zion Tobiaseri bere emazteak, zuren limosnaren probetxu gitxia. Orain ikus-ten da zure esperenzaren banidadea. Baña semeak nun zegoan pobrea, nun zegoan nezesitatuba, *reventus nunciavit*. Orra nere jente ona, jakiñik zer izan-du zan kausa baña, eztago zer apartatu zergati dirade obek limosna ta mise-rikordiaren pribilegioa, *ellemosina a morte liberat*.

Bai nere kristauak, limosnak egin zituban milagro obek, limosnak lagun-du zion bide luze artan, limosnak ekarri zuen osasunarekin bere etxera, li-mosnak alkanzatu zion dirubak, limosnak argitu zion bere aitari begiak, li-mosnak atera zuen eriotzaren peliguruetati, limosnak konsolatu zituban aita, ama, seme ta etxe guzia. Ta limosna dala mediante, dio San Agustinek, lo-gratu zuben aingerubak eriadutzat serbitzea, *videte clarissimi sed ellemosina, angelus meruit labere operaris*.

*Videte clarissimi*, begira nere maiteak, esaten zuen San Agustiñek, begira ezazute zein andia den limosnaren meritoa, ta begira ezazute esaten dizuet neronek ere, begira ezazute zein poderio andia, zein bentaja andiak ta zein pre-

#### 5. fol.

mio andia duen miserikordiak. On da negar egitea, ona da orazioa, ona da barua *cum yeyunio*, baña nik erreparatzen dedana da, obek guztiak egin bazituan ere Tobiasek limosnari bakarrik ematen diola aingeruba guzia, *quo-niam elleemosina a morte liberat*. Egi ezazute bada, nere kristauak, egiezazute

limosna, baldin Tobiasek bezela nai badezute batetzea ondasunez, baldin nai badezute libratzea eriotzaren okasio guzietati. Nere kontentu jente ona, aingerubak izango dezutela lagun, aingerubak aterako baitute eren eskubakin eriotzaren okasio guzietati, egiten dezutela bear dan bezela limosna.

Txit prisa andiarekin dakust daramatela aingeru bik eren eskubetati Lot, bere emaztea ta alaba bi. Zer nobedade ote degun au? Eta nundi ote daramate edo nora? Akabatu nai zuen jaungoikoak eta guztiz abrasatu azufrez eta ikaragarriko su andi batekin ziudade desdixatu Sodomako ta Gomorrakoa. O zer okasioa, nere jente ona, seigarren mandamentu santubaren kontra dan bekatu itxusiaren onrra esateko. Entregatu zan jente gaiztoa bizio torpe onetara. Ez zuten Jaungoikoaren bildurrik eta ezta eren gusto torpea baño beste jaungoikorik, ta orregati destruitu zuen txiki ta andi, etxe ta hazienda, habere ta arbolarañako guzia. Etzuten obek bekaturik agin, baño anbat Jaungoikoa aserratzen da bekatu itxusi onekin, ze etzion bateri ere barkatu, guzia akabatu zuen, *cuncta tertis verentio*. O nola bildur naizen egin ez dezan ainbeste beste erri askorekin! Kristauak kristauak, begira begira nola bizi zera-ten, orain da denpora, orain Jaungoikoak agintzen dizu iges egitea okasio orretati, ez ezazu bada, ez nere kristaua, itxeden gerora, orain deitzen dizu, orain Jaungoikoak emaiten dizu lekuba. O zenbaitek negar egingo zuten Sodomako ta Gomorrako ziudadeetan, baño zer aprobetxatu zuen, zer logratu zuten, ezer ere ez, erre ziran, abrasatu ziran, kondenatu ziran. Kontu bekataria, erre, abrasatu ta kondenatu sekulako ez zaitez an.

Lot bada ta bere familia atera zuten eren eskubetati aingerubak. O zer ditzaren andia ainbesteren artean eskogitubak izatea. Andia da baño adi ezazu zer egin zuen berak. Eseririk zegoala Sodomako atarian, ikusirik pelegrino bi (ziran aingerubak), egin zuen erakin miserikordia, konbidatu zituan bere etxera ta zituan leia andiarekin, *compulit illos opido ut deverteris ad eis hebraeium fecis eis valde, ingresi qu domina illius fecit dominum et comederist*. Zer limosna egin zuen, ta miserikordia pobreak zirudienekin nai ta nai ez eramane zituan bere etxera. Esanik dago bada, dio aita Octavianok, egingo zutela bere rarekin ere miserikordia, *quoniam igitur dio autore onek, coegit nos ut domum tuos cenaturi intraremus cogimus*

6. fol.

*et nos etiam te ut Sodoma cades et ignes illos*. Ea bada, nere kristauak, ezagutu ezazute eztagoala errenta segurubagorik, ez zenso obeagorik, limosna baño. Lurrera botatzen dezunak sarri faltatzen du. Adiskideari emaiten dio-tezunak egunero faltatzen du. Aideai emaiten diezutenak zenbat amatzen du? Ta zer besterik suzeditzen da zeuren semeai emaiten diezutenarekin. Zenbat bider zuren kuidaduba pagatzen dizute pesadunbre batekin. Zenbat aldi auzi gogor batekin? Aita sikiera il gaitzanean gogoan edukitzeko bear diegu zerbait eutsi. Ondo dago, eztet nik esan nai ez dezazun ezer eutzi, baño esango dizubet ez dezutela geiegi fiatu bear. O zenbat erakusten duen esperienziak! Ta, o zenbat bider ikusten degun senar ta gure dirubak dijoazela gusto banidade ta beste maldade askotan defuntuben memoria gabe! Nai dezu bada seguru bizi, nai dezu eskerra, egiezazue limosna ta orrekin aingerubak zerruti bialtzea kostako bazaio ere, egingo dizu Jaungoikoak bear dezuna. Eztezu zer bildurtu nai kristaua bezela geldituko pobre, ez nere kristaua. Zenbat limosna geiago egin oraingo dira zure ondasunak andiagok.

Emakume bat dakust eginik ogiz kargatubat zoezala, *facta a quasi navis nitoris de longa portas*. O zer ditxaren andia! Baña zer tratuk onela aberastu zuen? Ya dio bere proberbiotan, *manus suas aperuit ninopi*, zabaldu zion pobreak bere eskuba, *palmas unas contendit ad pauperem*, bere esku biak largatu ziozkan nezesitatubari. Orra motiboa nere kristauak, orra nola gitxitzen zeran, orra nola zenbat limosnaak andiagoak geitzen diran ondasunak. Etzen kontentatu bein pobreaki emaiterekin, esku biak largatu zion. Ez zuen insigniak esaten zuen bezela, ta ez beste askok oi duten moduban errezibitze-ko, kondentatzen du au Espiritu Santu Jaunak, *non sit porrevit*. Zabaldu zitu-ten, largatu zion emaitere, *ad pauperos*. Ori izandu zan kausa ta ori izango da zure traturikan onena. Orain da ondo San Ambrosioren erreparu eder bat. Zergati dio San Ambrosiok agindu zuen Eliseok eun gizonen artean ekarri ziozkaten ogei ogi txikiak, etzion esaten kriadubak ez zirala asko izango gu-ziak batzeko, *qum a hoc ut opponem centis viris*. Bai, egia da, baña zekian Eli-seok ez zegoala sobratzeko erremedio obeagorik partitzea baño, *dividem vo-luit et iudicavit*, partitzen da bada sobra. Eztago konszienzia garbiagorik logika guztian sobratu biziko dala limosnagillea baño.

O nola sobratuko liraten gauzaak interesak aize biurrak ezpalira. O zen-bat aberatz izango lirate banidadeak, andikeriak, tratu ta komunikazio gaiz-to ta peligurosoak eramaiten ezpalu. Ta ze tximikaren gaiztoa dirubakin aize egitea! Aize egitea diot norekin. Zer dira bada oriek ekarten dizuten gustoak aizea baño, *utile gaudis*, zer gelditzen zazue aizea baño! Pasatzen eztira zuben gustoak, zuben dibersioak, akabatzen eztira aizea bezela. Ta gelditzen zerate geienetan, o lastima ta desditxaren andia bekatuban! O Jaungoikoa zein kon-tu estubak artuko dituzun! Egiezazute bada limosna,

## 7. fol.

ezazute ondo nai badezute eriotzati libratzea, *a morte liberat*, nai badezu-te logratu bekatuen parkazioa, *ipsa a que pungat peccata*.

Ya goaz bigarren puntura. *Ipsa a que pungat peccata*, limosnak dio garbi-tzen duela anima bekatubagandi. Ala suzeditu zizaon gaur eleiza ama santuak errezatzen dion Santu andi oni. Izandu zan leendabiziko artan bekatari an-dia, baña esan dedan miseriordia izandu zan asko, aditzeko Jesu Xtoren aoti, *remitunto ei peccata multa, remitunto tibi peccata*, parkatzen zaio bekatu as-ko, parkatzen zatzu bekatubak. Etzan kontentatu bein esanarekin, bi aldiz esaten du, ta baita ere gure konsuelorako motiboa. Bere negarrarekin, dio Je-su Xtok, garbitu zidan oñak, bere illearekin legortu zidan, nerekin egin du miseriordia. Zergati esaten dizut Simon, parkatzen didala bekatu asko, *re-mitunt ei peccata multa*. Nai dezu bada kristaua aditu itz obek, egi ezazu li-mosna. A Jauna, Madalenak egin zion Jesu Xtori, baña berorrek esaten du egin dezadala pobreaki. Bai nere kristaua, pobreaki esaten dizut, zergati dan edo guzia bat, *quod uni ex eiis minimis fuistis mihi fuistis*, edo benturaz geia-go pobreakekin egitea.

Oiduben agudezia andiarekin erreparatzen du Vicina doktoak Madale-naren miseriordiaren gañean. Ya Jesu Xtoren disipuluen akusazioan, ya be-re Magestadearen errespuestan, bere oñetara Madalenak bota zionean uben-tuba esan zuen diszipuluak *ut quid perditio his potuit enim unguentus istud venundari multo et dari pauperos*, zertarako da alperrik galtzea, obe zan saldu

ta dirubarekin egin pobrei limosna. Au izandu zan disipuluen eritzija. Ta zer esan zuen Jaungoikoak? Ya dio ebangelista sagradubak, ez dezute zer gaizki esan, ondo egiña dago. Izan ubentubat alizakean enpleorikan oneena, baña zergati, jauna, ondo egiña? Zergati ondo enpleatuba bere oñetan ubentuaren diruba? Errespuestati ateratzen du Jesuita andi onek bere prueba. Errespuesta izandu zan *semper pauperes habeis vobiscum, me autem ne semper habeis*, zergati beti daukazute zeubekin pobreak, ez baña ni. Orain Vicinak ateratzen du konsekuenzia. Orrela beti egon baliz gurekin, denpora gitxi bat egon zan bezela, etzan izango Jesu Xto pobrea baño leenago, ta esta kastuba ere ain ondo Jesu Xtogan nola pobreagan egiña. Bada obeagotzat eman bazuen berarekin enpleatzea pobrearekin baño, izandu zan kausa zergati zegoan denpora gitxirako, pobrea berriz betiko. Orrela itz egiten du Vicina doktoak ta prueba andia izateko berea izatea du asko.

Eztago bada eskusarik nere kristauak limosna ez egiteko, eztago motiborik ni ondo beterik emendi ez bialtzeko. Eztu ere balioko esateak ez dutela eunik. Jesu Xtoren oñetarako tobajaren orde serbitu zuten illeak, ta neretzat eunaren aldera serbituko du ariak. Jesu Xto gelditu zan gustoz ta estimatu zuen illeak, nik ere estimatuko ditut aren semejanza ariak. Ez bada ezerkiñ ere dete [ ] eman ezazute Jesu Xtoren oñai pobrei limosna andia, eman

8. fol.

zute euna, ta orrekin Jesu Xtoren presenziara allegatu ezker ezin azertatuko du iñor kondenatzera. Bekatua gustiz torpea ta itxusia bada, eztu ezperimentatuko ezpada miserikordia ta piedadea. Baño gitxi esaten det bere seme dibinoa, bere lege santua mudatuko bada ere, eziñ egingo du ezpada miserikordia.

Emakume triste bat dakarte farisioak Jesu Xtogana. Nobedade andiren bat degu! Adi dezagun zer dioten. Jauna, diote Jesu Xtori, emakume au orain artu degu adulterioan, *lege mulier modo dephensa ni adulterio*. Moysesen bere legean agintzen du orrelakoak arrika iltzea, *ni lege autem Moyses mandavit nobis huius modi lapidare*. O ze notziaren gaiztoa! En fin alako mandatariak alako mandatua. Bada, nere kristauak, geienetan farisioak oi dirade onelako notziak jakin da aotan erabiltzen dutenak, eta o emakumearen desgraziatua, a zer sentenziak esperatzen dizun, a zer kastiguaren andiak. Zer egingo du Jaungoikoak artu bazaitu adulterioan, zer egingo du legeak arrizko ta arrigarrika eriotza disponitzen badu. Baña adi degiogun berari. Ya galdetzen dioe, *ergo quid dixis*, zer esaten dezu bada, zer egingo ta zer kastigu emango diogu? Ea jauna erantzun beza, adi dezagun? Ya bigarren aldian galdetzen dioe. Ara bada, dio Jesu Xtoc. *Qui sine peccato e unus primus ni illam lapis mittat*, bekatu baga dagoanak artu ta tira beza leendabiziko arria. Bekatu baga dagoanak? Baña zein da jauna bekatu rik ez tuena, ori da libratzea ez geiago, ta ez gitxiago. Ala suzeditu zan, iñor ere ez zegoan bekatu bage. Iñork ere etzion tiratu arririk ere. Juan ziran guztiak ta orduan esan zion Jaungoikoak emakumeari, nun dira akusatzen zenduenak, inork ere etzaitu kondenatu? Ez jauna. Bada etzaitu kondenatuko nik ere, *nec ego te condemnabo*. Baña zer esaten du jauna? Nun da legeak agintzen duena, eztu Moysesek esaten. Baña obeto ezta berorrek Moysesen legean agintzen il dezatela bekatu orrekin biallatzen duenak? Ala da, baña adiezazu, dio Vilocina doktoak, nun au pasatu

zegoan Jesu Xto, dio ebangelista sagradubak, Gazophilao edo Andricorniok esplikatzen pobreen nezesidadeetarako bear ziranak gordetzen ziran zegoan lekuban: Jesus Gazophilao Andricomio urak *seu erarium ni quo ad saficia ad pauperes ad templi fabricam*. Orregati bada, dio Vilocina doktoak, portetu zan Jesu Xto ainbat piedade ta miserikordiarekin *inde tam mitis ai clemens aparet*.

Bada len nere kristauak kutxaren aldamenean Jesu Xtok ezin egin badu kastigurik, nola egingo du limosna egiten dutenarekin. Baldin aldean egotza aprobetxatu bazizaion emakumeari, zer aprobetxatuko ez dezue limosnak zubei. O limosna zein andia zeran! Zein gitxi ezagutzen zaituen, zuri nai dizuben. Baña orregati nai dizube ain gitxi, zergati ezagutzen ez zaituben. Baña gaurreti aurrera ez dezu izango kristaua ez limosnarik egiteko eskusarik. Egiezazu bada. Zer aprobetxatuko dizu interesak juntatzeak? Zer egiten dizun diru pilloak? Begira ezazu nola negar egiten duten

9. fol.

guziak. Egiten du asko aldiz ongilla ta beste kristau guziakati orazioa astean bein enkargatzen da komunidadean eren sakrifizioetan guztien memoria, ta nork konta lizake meza noturno ta beste esaten da egien diran obra ona?

Nere kristauak interes andiak galduko dezute egiten ezpadezute limosna. Baita ere atrebituko naiz esatera erri obek daukatela Aranzazukoai egiteko obligazio andia. Pensa bitza bakoitzak zenbat zor dion Ama Virginari ta kontubak aterarik esango du dedan ala ez errazoaia. Ya akabatzer a nijoan akordatu ezpanintz norbait egongo dala engaño andi batekin. Jauna, esango du norbaitek bere biotzean, ohea da biotzean esateko klaru baño, Arantzazura juaten geran orduban, ez tigu iñork ere kasorik egiten, ta nork egin lezake limosna? O zer gauzaren itxusia! Emakume edo gizon ori esaten dezuna zergati egiten dezu limosna? Edo religiosoak ondo artu zakien, edo Jaungoikoak zure bekatuak parka degiezun? Baldin leendabizikoagaiti egiten badezu, da disparate andi bat Jaungoikoak eztizu ezer, Jaungoikoak esango dizu *accipisti mercedem tuas*, rezibitu zenduban eskerra, edo zoaz bestagana. Berriz jaungoikoagaiti egiten badezu, noiz faltatu dizu Jaungoikoak? Ala nai dezu tiro batekin txori bi eltzea. Baña ori da geiegi nai izatea ta ezer ere ez logratzea, zergati Jaungoikoak estimatuko ez dizu, ta gizonak faltatuko dizu. Nere kristaua, Jaungoikoagaiti zor diozu bada orrenbeste, Jaungoikoagaiti ta orrekin asko emaiten badidazute, neu txikia banaiz ere, ta juizioko egunean jente andia izango bada ere, Zakeok arbela gañera igo zuen moduban, arroparen gañera igota, eskatuko diot Jaungoikoari zubentzat gloria: *ad gratiam*. O. S. C. S. R. C. S.

## LABURPENA

*Frantzisko Palacios euskal idazlearen sermoi bat*

Frantzisko Palacios Lezeta (1727-1804) Zarauzko misiolari etxeko predikatzailerik ezaguna izan zen bere garaian. Askotxo izan ziren izkiriaturik utzi zituen sermoiak, euskaraz zein erderaz. Palaciosen lanak ikertzeke darrai oraino, eta idazki horien egoera zein den kaxkarra kontuan harturik, beharrezko egiten da lan horri ahalik eta lasterren ekitea. Honako artikuluan, Palaciosen euskal sermoi horietakoa ekartzen da, idazlearen idazgintzaren erakusgarri, eta ikerlarien kitzikagarri.

Gako hitzak: Palacios, eliz literatura, XVIII. mendeko euskera.

## RESUMEN

*Un sermón del escritor vasco Frantzisko Palacios*

Francisco Palacios Lezeta (1727-1804) fue un conocido predicador del seminario de misioneros de Zarautz. Muchos son los sermones que dejó escritos el franciscano, tanto en euskara como en castellano. No obstante, la obra de Palacios sigue sin ser estudiada, y si a ello se suma el estado en el que están estos papeles, es necesario que el examen de su obra se haga cuanto antes. En este artículo se recoge un sermón vasco de Palacios, ejemplo de su hacer escrito, con el objeto de animar a los investigadores.

Palabras clave: Palacios, literatura religiosa, euskera siglo XVIII.

## RÉSUMÉ

*Un sermon de l'écrivain basque Frantzisko Palacios*

Francisco Palacios Lezeta (1727-1804) fut un prédicateur très connu du séminaire des missionnaires de Zarautz. Le franciscain a écrit de nombreux sermons, en basque et en castillan. Cependant, l'œuvre de Palacios n'a pas encore été étudiée, et si à cela, nous ajoutons l'état dans lequel se trouvent ces documents, il est nécessaire d'examiner son œuvre le plus tôt possible. Dans cet article se trouve un sermon basque de Palacios, exemple de son savoir faire en écriture, afin d'encourager les chercheurs.

Mots clef: Palacios, littérature religieuse, basque du XVIII<sup>ème</sup> siècle.

## ABSTRACT

*A sermon by the Basque writer Frantzisko Palacios*

Francisco Palacios Lezeta (1727-1804) was a well-known preacher from the seminary of missionaries in Zarautz. This Franciscan left us with many sermons written both in Basque and Castilian. The work of Palacios, however, has still not been the object of study and if the current state of these papers is taken into account, then an examination of his work should be performed as soon as possible. The article contains a sermon which Palacios wrote in Basque, a good example of his literary skills, in the hope that researchers may take an interest.

Key words: Palacios, religious literature, XVIII-century Basque.